

mundu moderno honetatik urruna, ipuin tradizionalak oraindik ere beren xarma eta irakurleak liluratzeako ahalmena izan dezaketera erakutsi zigun.

Fco. Javier Rojo Cobos

Bibliografia

- APALATEGI, Joxemartin (1986): *Introducción a la historia oral. Kontu zaharrak (cuentos viejos)*. Anthropos. Barcelona.
- ARRATIBEL, Joxe (1980): *Kontu zaharrak*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo.
- ARRATIBEL, Joxe (1995): *Kontu zaharrak*. Erein. Donostia.
- CAMARENA, Julio; CHEVALIER, Maxime (1995): *Cartólogo tipológico del cuento folclórico español. Cuentos maravillosos*. Gredos. Madrid.
- ETXANIZ, Xabier (1996): «Aitxor txiki bat». *Euskalunon Egunkaria*. 1996-04-13.
- ETXANIZ, Xabier (1997): *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Pamela. Nafarroa.
- GOMEZ ZUBIA, Genaro (2002): «Charles Perrault eta Grimm anaiak, ahozko narraitaren egokizailak». *Behinola*. 7. 26-38. orr.
- IBARGUTXI OTERMIN, Felix: «José Arratibel Zurutuza». *Aunamendi Eusko Entziklopedia*. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/10340>.
- ITURBIDE, Amaia (1996): «Ipuinak». *Euskalunon Egunkaria*. 1996-03-16.
- JUARISTI, Felipe (1995): «Etxean entzundakoak». *El Diario Vasco*. 1995-12-16.
- LANDA, Mariasun (1996): «Ahozkotasanaren xarma». *Argia*. 1996-02-11.
- ROJO, Javier (1996): «Tradizioitik hurbil». *El Correo*. 1996-03-21.

Tristea kontsolatzeko makina (1981)

Anjel Lertxundi

Garaian HGLan oso berrizaila izan zen ipuin liburu argitaratua eman zuen Anjel Lertxundik 1981ean. Gianni Rodari pedagogo eta idazlearen pentsamenduari jarraituz, liburuak osatzen duten hamaika ipuinetan errealtatearen eta fantasiaren arteko bidea aurkitzen du irakurleak. Gaur egun, hainbat adinuk adierazi duenez, fantasia errealtateko mundura hurbiltzen du haurra horregatik; fantasia bitartekari garrantzitsuenetarikoa bat dela kontuan hartuta, hauraren mundu kaotikoa ordenatzen saiatu beharrea, Lertxundik forma ematen dio uneak bere inguruko errealtatea ulertu dezan. Hamaika ipuin desberdin eta dibertigarri: istorio laburrak, zehatzak, barzauk egunerokotasunean oinarrituta eta guztietan hauraren irudizko mundua suspertzeke sortutako istorio irudimentsuak aurkitzeke egokiak.

Ipuin liburu honetan, tristea kontsolatzeko makinak ahalegina egiten du idazleak fantasiako bideak haurrak zeharkatu ditzan era eta berean, fantasia baliatu, aukera ezin hobea eskaintzen zaio haurari ohikeriatik ihes egin ahal izateko. Colomeren (2002) ikerketa aintzat hartuta, istorioen garapenean arreta jarritz gero, hiru multzotan bana daitezke ipuinak: baretik; fantasia eta errealtate argi eta garbi tarrekarzen dituzten kontakizunak, hala nola: «Donostian elefanteak ikusi zireneko», «Hartuko nuke markesaren telebista», «Ipuin-ipuinka», «Tristea kontsolatzeko makina», «Gaston Txanpon», «Baloj internazionala» eta «Double fantasy»; bigarrenik, nagusiki errealtateari lotutako osagaiak dituztenak: «Rafaelen ajak» eta «Mikel hondartzan»; eta, hirugarrenik, «Kepantonen garatxo» eta «Oliategian dira aipagarriak», kutsu herrikoa, elezaharrak eta aho-korapiloak gogorazten dizkigutenak. Ipuin guztietan, ordea, Lertxundik hasiera-hasieratik agertzear dagoen irudizko mundua

erakusten du, eta fikziozko unibertsu horietara sartzeko gogoia piztu ondoren, zaila egiten zaito haurrari irakuritze-prozesa uztea. Sorturako denbora eta espazioaren eremuan, autoreak ondo mugatzen ditu pertsonaiak eta haurrak ez du orduan inolako arazorik aurrean aurkezen zaiton fikziozko mundaia identifikatzeko. «Donostian elefanteak ikusi zirenekoa» ipuinean, izenburuan bertan jasotzen da informazioa, hau da, istorioa non garatuko den eta protagonistak elefante gizatiarriak izango direla behala oharzen da haurra. Kontraktuzun guztietan, hasieratik ere, istorioak irakurlea harrapatzen eta motibatzen du idazlea zertaz ari den ulertaraziz eta misterioa eragiteko asmoz informazioaren hainbat aral isilean utziz. «Donostian elefanteak ikusi zirenekoa», «Ipuin-ipuinka» edo «Tristreak kontsolatzeko makina» ipuinetan, adibidez, narrazitzaileak hasieran emandako informazioa ez da nahikoa izango zer gertatuko den jakiteko, baina bai, ordea, irakurketarekin jarraitu ahala munda zoragarri bat zabalduko dela susmatzeko. Ezohizko hasierak ere nagusi dira Lertxundiren ipuingintzan. Kasurako, pasadizo dibertigarri eta bixi batak irekitzen du «Baloï internazionala» ipuina, haurraren sentimenduetan azalertzeko baliagarria. Beste zenbaitetan aldiz, irakurlearen harri-dura behin lortuta, autoreak apropos idaztirako hasiera nahasgarria haurrak erronkatzat har dezake zailtasuna gainditzeko gai dela erakutsi nahian; horren adibide garbia «Hartuko Nuke markesaren telebista» izan liteke: nola azaldu telebista-pantailatik irrendako tiroak Hartuko Nuke markesa filma ikusten ari den bitartean?

Colomeren (2002) lanari jarraituz eta Lertxundiren ipuinen laburtasuna kontuan hartuta, berebiziko garrantzia eman behar zaie hasierei. Haurrak istorioaren zentzua erraz harrapatzeko trebetasunez jokatu behar du idazleak, horregatik umea narrazitzailearen tonuaren presentzia berehala jabetu behar da, bere burua ipuinean kokatzeko eta kontraktuzunaren aurrean zer jokamolde hartu behar duen jakiteko. Irakurzeko ohitura duen helduek ez bezala, haurrarenak pazientziarik gabeko irakurketak dira, beraz, ipuinetik kanpo dagoela sentituz gero edo ipuinen tonua azkar harrapatu ezean, irakurketa baztertzeko edo uzteko gogoia izan lezake. Idazkera arina, zehatza eta argia erabiliz haurraren kurosiatara pizten da eta Lertxundik sortutako irudizko mundaia deskodifikatzeko beharrezko informazioa eta baliabideak eskura jarzen dituen bitartean, umek bere aurrean munda erakargarri baretza sartzeko aukerari ez dio ihes egiten uzten.

Kontraktuzun laburretan, elementu guztiak adierazleak izan eta irudizko hari batean elkarri lotuak egon behar dira. Bistan da Lertxundik kausa-ondorio denborazko kate baten barnean antolatzen

dituela ekinzako istorio bakoitzak egitura aproposa lor dezan. Kate hori errespetatzen den heinean, fikziozko munduari sinisgarritasuna ematen zaito, eta, sinisgarritasun horren bidez, koherentzia konstruktiboa nagusitzen da kontaketan. Nahiz eta ipuin gehienetan errealtateko munduaren logika apurtu, ipuinen egitura berezua ezinbesteko baldintza da haurrak idaztirakoaren sinisgarritasuna hautemateko, hau da, logika kausala munda erreala zuzendu beharrean irudizko munduan nagusitzen da, eta, ondorioz, haurra munda errealek baretik irreal baretara eramaten du istorioak. Horrek interesa eta suspensea pizten ditu irakurleengan batez ere, planteatutako konfliktora nola amaituko den jakiteko aukerarik ez dagoelako. Errealitate eta fantasiako mugen artean mugitzeak ipuinen konfliktora fantasiako edo errealtateko munduaren arauen arabera konponduko delako ezjakintasuna dakar, eta horiek kurosiatzearen handitzea. Bi munda horien nahasmena «Doble fantasy» ipuinean agerian dago: irakurlea fantasiako munduitik mugitzen da, baina, ipuinen konfliktuari ordea, errealtateko konponbidea ematen zaio. Horretan Agustinek argazki-makina erosi berri du, eta, erabiltzen duen bakoitzean, fotografaturakoa bikoitzen da, baina, arazoari aurre egiteko, Agustinek argazki-kamera lurrera botatzen du eta txiki-txiki eginda geratzen da.

«Tristreak kontsolatzeko makina» ipuin-liburuan ondo amaitzen diren ipuinak aurkitzen ditugu, eta haurrak kontraktuzunetako bidaia literariotik zoriotsua ateratzen dela pentsa genetzake. Alabaina, irakurleengan pizturako jakin-mina areagotzeko konponbiderik gabeko ipuinak ere badaude: «Donostian elefanteak ikusi zirenekoa»-n edo «Hartuko Nuke markesaren telebista»-n bertan, Lertxundik ez du fantasiako munda horretatik iriteko aukerarik ematen, eta konponbidea aurkitzeko ezintasunean, haurra hasieratik amatetara arte munda irreal batean mugitzen da irudimenaren eskutik. Donostiako biztanleria elefanteak izatea edo telebista-pantailatik tiroak iritea guztiz normalizat jotzen du autoreak.

Bestalde, Lertxundik behar bezala saihesten ditu haurrentzako literaturan narrazitzaileak aurkitzen dituen arazoak. Harritzailearen gaitasun linguistikoa eta horren jakintza gogoan hartuta, hizen neurketa ezinbestekoa da autoreak helarazi nahi duen mezua ulergarri egiteko. Haurrak arreta galdu ez dezan etengabeko jokoak eta mugimenduetak egitera behartuta dago autorea eta hori guzti hori aurrera eramareko, hainbat ahots-mota baliatzen ditu. Zenbait ipuinetan, Lertxundik irakurlea gonbidatzen du kontratuko duena entzuterat: «Rafaelen ajeak» ipuinean, kasurako, narrazitzaileak umearikin mantentzen duen elkarrizketak konfidente egiten du haurra. Erabilirako

balabideek era egiturak ahozkotasanaren zantzua bermatzen dute narraziale era hauraren arteko etlazioa estutu ez irakurlearen inplikazio eskaruz. Hori dela eta, haurra ere alderdi aktiboa da konfliktuaren konponbidean: narrazialeak galderak egiten dizkio eta enzuleak / irakurleak interakzionatu egiten du. Haurrak hausnarketara beharuta ikusten du bere burua; hau da, idazleak eskaintzen dituen datuak haurrak lasai asko deskodifikatzen eta interpretatzen ditu, ipuina joko bat izango balitz bezala:

«Orainxe konturko dizuet jendea nola konpontzen zen. Jendean ez zitzaizkion Rafaelen doministiku, ezruli, irrimzi, orro eta negarrak atsegin eta, horregatik, alderantziz esaten zituen jendeak hitzak eta baita Rafaelek ongi ulertu ere zer eskatzen zitzaien.

— Rafael, TZORA bar nahi nuke.

Era Rafaelek egurrezko arotz bat ateratzen zuen, mailu era guzti, apal handi batenik.» (Lertxundi, 2002, 49).

Beste ipuinetan, ordea, irakurlea kanpoan dago eta bere aurtean gertatzen den kontakizunaren lekuko zuzena bihurtzen da; horren adibideak «Kepantonen garatxoak», «Baloi internazionala» edo «Donostian elefanteak ikusi zirenekoa» izan daitezke. Izan ere, «Rafaelen ajek» ipuinean izan ezlik, beste guztietan pertsonaien bizitza kontarzeko prest dagoen narraziale orojakilea nagusitzen da. Hitzek sortzen duten fikziozko mundutik, beraz, narraziala gustura mugitzen da informazioa murrizten eta inruga aregotzen. Baina narraziala garrantzi handikoa da, sorturako mundua deskribatzeaz gain, horren interpretazioa ere ematen duelako. «Ipuin-ipuinka» istorioan, Lertxundik ez du esplizituki esaten Loraine protagonista apertasu eta esan txarreko neskaroa denik, baina, ipuinaren lehen-dabiziko hiru lerroetan autortek egindako deskribapena nahikoa da neskari gertatzen zaiola justifikatzeko. «Gaston Txanpon»-en, narrazialeak ez digu zuzenean zikoizkeriaz hitz egiten; hala ere, haurra behar den baino gehiago desiratzen duenari zer gertatzen zaien ohartzeko gai da. Era berean, «Mikel hondartzan» kontakizunean haurrak jasotzen du zein ondorio larzak ekaritzen duen amaren aholkuei jarmon ez egiteak. Edozelan ere, mezu moralizatzailea aurki daiteke zenbait ipuinetan: desiratzea bakarrrik noik bere gain har dezakeena, anbizioa zigortu egiten da edo gurasoen agindua / aholkua ez betetzeak dakarren ondorioa.

Bestalde, pertsonaien hautaketak ere ipuinari koherentzia eta sinesgarritasuna ematen dizkio. Hauraren ustez, pertsonaiak baino pertsonak eta askotan ereduak izango dira protagonistak, horrik

ondo eratutak egoteki premia; hau da, pertsonaiak umearen eta jokaera eta irizki egokiet buruzko ikuskera sozialen arteko biarrekatik dira, eta istorioak bezala, mota guzietakoak: errealtismoaren ikurrak («Mikel hondartzan»), estereotipatuak («Kepantonen garatxo»-n iporxak), objektu animatuak («Baloi internazionala») edo animalia gizatiarrak («Donostian elefanteak ikusi zirenekoa»). Nolanahi ere, errealtitatearen biarrekatik eta istorioaren haria bidarrezko arduradunak. Era berean, protagonisten izenak ere aipagarriak dira pertsonaia istorioaren hasieran aipatzea bere izaera definitzeko oso onuragarria izan baitaiteke. Izen batzuekin joko dibernigarria egiten du Lertxundik: «Harruko nuke markesaren telebista»-n Pedagoio izena du irakasleak eta Maioritario alkatetxak; argi dago horrelako izenak pertsonaia bizi modaren ispilutzak direla. Beste batzuetan, autortek izena ironiaz ematen die protagonistei; Gaston Txanpon eta Mikaela Kimiela dira bosgarren ipuinaren pertsonaiak; deskriptibiorik gabekoak izan arren, izenak egokiak dira zer izaera mota duten jakiteko. «Ipuin-ipuinka»-n, aldiz, Lertxundik Loraineren deskribapen psikologikoarekin hasrea erabakitzen du eta horrek, ipuina aurreratu ahala, protagonistaren izaeraren aldaketaz ohartzeko aukera ematen dio irakurleari. «Rafaelen ajek» ipuinean, istorioa garatzen doan bitartean idazleak pertsonaia bereizgarriak agerian uzten ditu eta horri esker, irakurleak autonomia handiago dauka pixkanaka-pixkanaka pertsonaia bere kabuz deskubritzeko. Pertsonaia eraketa egokia lortzea ezinbesteko zeregina da haur-literaturan; batez ere, lagungarria da, haurrak errealtatea esploratzeko pertsonaia bereizgarriek era joerek mundu errealeko pertsonen izaera sinplifikatzen baitute. Lertxundik eraturakoak hurbilak dira, ulergarriak eta haurrak dakienarekin nahikoa dauka haien jokamoldea konprenitzeko. «Kepantonen garatxo»-n, kasurako, Lertxundik balezatu bezala «ipuin herriko! batean oinarrituz sortua», elementu magikoek (ipotxak, sorginkeria) pertsonaia ezaugarriak gizakien gaitasunetik baino haratago joan daitezela bermatzen dute. Fikzioaren bidez, horraz, umek desirak errealtate bihur ditzaizkete haurtzaroren mugak gainditzeko gai direla konurtzen direnean.

Bukatu baino lehen, ezin ahaztu liburuan zehar ikusi daitezkeen irudiak. «Tristek Kontsolarzeko makina»-ren Antron Olatiagak egindako marrazkiak eta ipuina bera elkarren osagari dira hauraren ulermen-prozesuan. Irudiek haremaren esua sortzen dute hitzkin, eta, kasu honetan, informazio gehigarririk eman ez arren, hauraren irudimenari bultzada ematen diote testuko pertsonaia edo objektuen deskriptzioak sendotu ahal izateko. Olatiagaren zenbait marrazki protagonisten haurtzar dute istorioan, «Olatiagian»,

kasurako, oso irudi adierazgarria dugu aho-korapilo ixurako ipuinean konatruturka islatzeko; idazleak narrazten duena edertki jasozen du ilustratzaileak. «Tristreak kontsolarzeko makina»-n, haurrari fikziozko mundua irudikarzen lagunzeko euskarri sendoa da makinaren marrazkia. «Rafaelen ajeak» kontakizunaren irudian, alditz, protagonisaren bereizgarriak nabarmentzen dira, eta isorioraren mamia ilustrazio bakar batean biltzen da. Beraz, testuak eta irudiak irakurkeraren ibilbide bera jarraitzen dutela ondoriozta genezake. Testuan geldialdiak egiteko gonbidapena luzatzen zaito umeari, eta, zalantzarik gabe, hitzekin batera «Tristreak kontsolarzeko makina» ipuin-liburuan irudia ere fikziozko munduaren osagarri nagusienetarikozat kontsideratu behar dugu.

Inaxe Martin

Bibliografia

- BORTOLUSSI, Maria (1985): *Análisis teórico del cuento infantil*. Alhambra. Madrid.
- COLOMER, Teresa (2002): *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Fundación Sánchez Ruipérez. Madrid.
- LERTXUNDI, Anjel (1981, 2002 argitalpena erabili dugu): *Tristreak kontsolarzeko makina*. Erein. Donostia.
- MONTEs, Graciela (2001): *El corral de la infancia*. Fondo de Cultura Económica. México.
- RODARÍ, Gianni (1979): *Gramática de la Fantasía. Introducción al arte de inventar historias*. Padua. Barcelona.
- TORREMOCHA CERRILLO, Pedro C., TORRÍOS CAÑAMARES, Cristina & SANCHEZ ORTIZ, César (2007): *Literatura infantil: Nuevas lecturas y nuevos lectores*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha. Cuenca.

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984)

Bernardo Atxaga

Bernardo Atxagaren ibilbide literarioan hainbat aro izan dira, eta HGLan surrealismorik kritika errrealista ironikora pasa da, aurreko ikerketa batean azaldu genuen bezala (Erxaniz, 2007). Ebo-luzio horretan 1984 urte mugaria izan zen; hasierako *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (San Roman editorea, 1980) eta *Ramuntxo detektibea* (*Nikolasaren abentura gehio*) (San Roman editorea, 1980) ipuin surrealisten ondoren 1984an, «Siberiako treneko ipuin eta kantak» bildumako azken lanak argitaratzearekin batera, Atxagak bere produktzioan mugari izango ziren bi obra plazaratu zituen: *Sugak txoriari begintzen dionnan* (Erein, 1984) eta *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (Erein, 1984). Aurreko ipuinetan baino irakurle helduagori zuzenduak daude biak. *Sugak txoriari begintzen dionnan* ipuinak 1983ko Lizardi saria irabazi zuen, eta bigarrenez agertzen da Obaba lurraldea Atxagaren HGLan, hain zuzen ere helduen literaturan agertzen hasi zen garaian (Obaba lehen aipamena 1982ko Iruñ Hiria saria irabazi zuen *Camiño Lizardi erretoaren etxean aurkituako gutunaren azalpena* izan zen). Eta, Iñaki Aldekoak aipatzen duen bezala (1992: 13) *Bi anai* liburuan —eta getoago *Obabakak* ezagunean— bezala, marjinatu baten istorioa kontarzen zaigu: Sebastian gaztearen ikuspuntuak gazte horren eta Martin aitona zahar eta marjintuaren arteko harremana.

Gazteei zuzendutako lehen obra horiek —eta *Bi anai* nobelak— Obaba zirkloa osatzen dute J. Kortzarren hitzetan: «Las tres componen lo que se ha dado en llamar el ciclo Obaba. Es decir la creación de un mundo mítico, de un espacio que es todos los espacios.» (Kortzar, 2003, 53).